

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2020 000001664

Espediente-zenbakia: 2020/IDA_DEK0864**Xedea**

COVID-19ak sortutako osasun egoeraren ondorioz, Osasun sailburuak emondako agindua dala eta, hartu beharreko osasun eta segurtasun neurriak onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu dauen egoeraren aurrean, Lehendakariak, martxoaren 13ko 6/2020 Dekretua emon eban, Lehendakariak Euskadiko Herri Babeseko Plana-Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi zuzentzeko eskumenak bereganatzeko.

Bigarrena: COVID-19ak sortutako osasun krisia kudeatzeko Alarma Egoera ezartzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua onartu zan.

Hirugarrena: 2020ko ekainaren 9an, COVID-19ak sortutako osasun krisia aurre egiteko prebentzino, euspen eta koordinazino premiazko neurriak ezartzeko 21/2020 Errege Dekretu-Legea onartu zan.

Laugarrena: 2020ko ekainaren 18ko Lehendakariaren 14/2020 Dekretuz, deseskaladarako 3. Fasea gaitzuztat eta, horrenbestez, alarma-egoeraren esparruan hartutako neurriak indargabetu eta "normaltasun berria" hastea onartu zan.

Bosgarrena: 2020ko ekainaren 18an, Osasun sailburuak, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 3. fasea gaitzuztu eta gero, beharrezko prebentzio-neurriei buruzko Agindua emon eban.

Seigarrena: 2020ko uztailaren 15ean, Osasun sailburuak, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 3. fasea gaitzuztu eta gero, beharrezko prebentzio-neurriei buruzko 2020ko ekainaren 18ko Agindua aldatzen eban Agindu barri bat emon dau.

Argudioak

Lehenengoa: Osasun sailburuak uztailaren 15ean emondako aginduan honakoa arautzen da:

**Sinadurea eta data**

2. artikuluan: "1.3.– Maskarak erabiltzeko derrigortasuna.

1.3.1.– Pertsonen arteko tartea edozein dela ere, nahitaezkoa izango da maskara erabiltzea, bai bide publikoan eta aire zabaleko espazioetan, bai erabilera publikoko gune itxietan edo jendearentzat irekita dauden lekuetan, eta espazio berean beste pertsona batzuekin elkartu daitekeenean. Salbuespen izango dira agindu honetan aurreikusitako kasuak, bai eta COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko prebentzio, geldiarazte eta koordinazioko premiazko neurrien ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege Dekretuaren 6.2 artikuluan aurreikusitako kasuak ere.

1.3.2.– Ostalaritzako eta jatetxeetako establezimendu eta zerbitzuetan, tabernak eta txokoak barne, maskara erabiltzeko betebeharrak hori jateko edo edateko unean bakarrik kentzen da. Bestela, erabili egin beharko da.

1.3.3.– Hondartzetan eta igerilekuetan, bainua hartzen ari garen bitartean edo eremu zehatz batean bagaude, ez da beharrezkoa izango maskara erabiltzea, betiere erabiltzaileen arteko segurtasun-tartea errespetatu badaiteke. Hondartzetan eta igerilekuetan joan-etorriak egiteko eta paseatzeko, maskara erabili beharko da. Pertsona-taldeek gehienez ere hamar lagunekoak izan beharko dute, eta pertsonen arteko tartea errespetatu beharko dute beti.

1.3.4.– Derrigor maskara behar bezala erabili behar da, sudur-trenkadaren zati batetik kokotseraino (barne) estaliz.

1.3.5.– Erabili beharreko maskara motak ez du arnasa egiteko balbularik izan beharko, salbu eta maskara mota hori gomendatuta egon daitekeen erabilera profesionalean.

1.3.6.– Establezimendu, espazio edo lokalen titularrek bermatu beharko dute beren espazioetan bete egiten dela betebeharrak hori.»

2.– 3.8 puntua aldatzen da –Ostalaritzako establezimenduak eta zerbitzuak, jatetxeak, txokoak eta elkarte gastronomikoak–, eduki honekin:

«Edukieraren muga kentzen da, baldin eta bermatzen bada 1,5 metroko distantzia fisikoa dagoela mahaien artean edo, hala badagokio, mahai-multzoen artean. Gehieneko okupazioa hamar pertsonakoa izango da mahai edo mahai-multzo bakoitzeko.

Barrura sartzea eta barran zerbitzua ematea baimentzen da, bezeroen edo bezero-taldearen artean 1,5 metroko distantzia fisikoa gordez gero.

Koktelak eta buffetak egin daitezke, gehienez ere 25 laguneko taldeetan.

Betiere ziurtatu beharko da bezeroen arteko segurtasun-tarte egokia mantentzen dela, establezimenduaren barruko barran zein mahaietan, bai eta establezimendu horien kanpoaldean ere.

Ikuskizunei eta jolas-jarduerei buruz indarrean dauden osasun-jarraibideekin bat etorritik, egungo egoerak eta agindu honen indarraldiak irauten duten bitartean, ez da ordutegiak luzatzeko baimen berririk emango jendaurrereko ikuskizunen eta jolas jardueren euskal erregelamenduaren 37. artikulua babesean, eta eman direnak indarrak gabe utziko dira.»

3.– Beste paragrafo bat gehitzen zaio 3.26 puntuari –Diskotekak eta gaueko aisialdiko gainerako establezimenduak–, eduki honekin:

«Ikuskizunei eta jolas-jarduerei buruz indarrean dauden osasun-jarraibideekin bat etorritik, egungo egoerak eta agindu honen indarraldiak irauten duten bitartean, ez da ordutegiak luzatzeko baimen berririk emango jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren euskal erregelamenduaren 37. artikulua babesean, eta eman direnak indarririk gabe utziko dira.»

4.– Beste bi apartatu gehitzen zaizkio 3. puntuari, 29. eta 30. apartatuak, eduki honekin:
«3.29.– Gazteen lonjak eta antzekoak.

Debekatuta dago gazte-lonjetan eta antzeko ezaugarriak dituzten lokaletan edozein jarduera egitea.

3.30.– Osasungaitzasun-egoerak.

Ostalaritzako establezimenduak edo antzekoak ez diren espazio publikoetan edo kalean taldean edatea osasungaitzasun-egoeratzat hartuko da, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legearen 6.f) artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako.»

Bigarrena: 21/2020 Errege Dekretu-legeak honakoa xedatzen dau 6.2 artikuluan: “La obligación contenida en el apartado anterior no será exigible para las personas que presenten algún tipo de enfermedad o dificultad respiratoria que pueda verse agravada por el uso de la mascarilla o que, por su situación de discapacidad o dependencia, no dispongan de autonomía para quitarse la mascarilla, o bien presenten alteraciones de conducta que hagan inviable su utilización.

Tampoco será exigible en el caso de ejercicio de deporte individual al aire libre, ni en los supuestos de fuerza mayor o situación de necesidad o cuando, por la propia naturaleza de las actividades, el uso de la mascarilla resulte incompatible, con arreglo a las indicaciones de las autoridades sanitarias.”.

Hirugarrena: Erabagia hartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Entitateen Erregimenaren oinarriak onartzen dauzan 7/1985 Legearen 21.1.m) artikulua arabera, alkateari jagoko, beti be Osoko Bilkurari erabagi horren barri emonda egiten dan lehenengoko batzarrean.

Erabagia

Hori guztia dala eta, honakoa erabagi dot:

LEHENENGOA: COVID-19ak sortutako osasun egoera kudeatzeko jarraitu beharreko osasun eta segurtasun neurri honeek onartzea:

- Maskara erabili beharko da bide publikoan, aire zabaleko espezioetan, erabilera publikoko gune zarratuetan edota jendearentzat edegita dagozan lekuetan, eta espazio bardinean beste pertsona batzuekin alkartu leikenean, salbuespen kasuetan ezik.
- Pertsonak, gehienez 10 kideeko taldeetan ahal izango dira alkartu.



- Ostalaritza establezimenduetan be maskara erabili beharko da, jan edo edateko unean ezik.
- Ostalaritza establezimenduetan pertsonen arteko gitxieneko distantzia bermatu beharko da (1,5 m.) eta taldeak ezingo diran izan 10 pertsona baino gehiagokoak.
- Debekatuta egongo da kalean edatea.
- Madalena egunerako ostalaritza establezimenduentzat onartutako ordutegi berezia bertan behera iztea. Hori horrela, honako ordutegia bete beharko da:

I. Taldea: 23:30.

II. Taldea: 01:30.

III. Taldea: 03:00.

IV. Taldea: 05:00.

- Gazteen lokalen jarduerak zarratu egingo dira.
- Aritzatxuko hondartzan eta portuan horretarako mugatutako bainu gunean ("martilo" kaian) maskara erabiltzea derrigorrezkoa izango da etzanda egon edo bainua hartzeko momentuan izan ezik
- Edozein kasutan Osasun Ministerioak eta Osasun sailak emandako gomendioak eta aginduak errespetatu beharko dira.

BIGARRENA: Erabagi hau ostalariei eta gazteen lokaletako arduradunei jakinarazotea.

HIRUGARRENA: Idazkaritza Sailari, ATB Sailari, Gazteria Sailari eta Udaltzaingoiari erabagiaren barri emotea.

LAUGARRENA: Erabagia Bermeoko Udalaren web gunean argitaratzea.

BOSGARRENA: Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkurean Dekretuaren barri emotea.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinean .



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E40004920E00E9R1X3M7M7C0

Sinadurea eta data

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 16/07/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 16/07/2020
10:06:57

EXPEDIENTE ::
2020IDA_DEK0864

Data: 16/07/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

